



Bertsozale Elkartearen Berripapera

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2024ko IRAILA - 255. zenbakia

## Bost urteren ondoren, abiatzera doa Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa

Irailaren 14an hasiko da Gipuzkoako Txapelketa, Urretxun. 48 bertsolarik hartuko dute parte, eta 16 saio jokatu ostean, abenduaren 14an jokatuko da Donostiako finala.

2019an izan zuen azken txapelketa Gipuzkoak, eta, bost urteren ondoren, berriz heldu zaio txanda. Irailaren 14an jokatuko da lehen saioa, Urretxun, eta astebururoko zita bihurtuko da abenduaren 14ra arte. Tartearen, 16 saio eta 48 bertsolari izango dira protagonista.

Txapelketak lau fase izango ditu: zazpi final-zortziren, bost final-laurden, hiru finalurreko eta finala. Fase horiei gehitu behar zaie udaberriko sailkapen fasea: Gipuzkoa Bertsoan. Bertan, 74 bertsolarik hartu dute parte 20 saiotan, eta hasierako 74 horietatik 34 sailkatu dira udazkeneko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketara. Bertan, 2019ko txapelketako finalurrekoetako eta

finaleko sailkatuekin batera abestuko dute.

Urteurren berezi batek ardaztu du txapelketa, Almenen, haurren lehen bertso-eskolaren, 50. urteurrenak; eta horrexek eman dio hain zuzen aurtengo edizioari mezua eta forma. Horri lotuta, aurtengo edizioan garrantzi berezia izan dute bertso-eskolek, transmisio eta talde izaera aldetik.

### Berrikuntzaz lepo

Urteurren berezia izaki, aurtengo txapelketak berrikuntza ugari ekarri ditu, Udaberriatik bertatik hasita: fase luzeagoa izan da, bi itzulitara eta bertso-eskolen

parte-hartzea izan dute girtzean. Ariketen aldetik ere, nabarmenak izan dira berrikuntzak: Bertsozale Taldea sortu dute horretarako beren-beregi.

Udazkenean ere izango dira aldaketak: ariketetan zein sarietan. Izan ere, aurtengo, ohiko sarietaz gain, sari berri bat izango da finalean: 25 urtetik beherako bertsolari onenari saria egongo da.

Txapelketari buruzko informazio guztia [bertsozale.eus](http://bertsozale.eus) webgunean aurkituko duzue, baita Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen sare sozialetan ere. Sarrerak, betiko moduan, bertsozale.eus atarian dituzue eskuragai. Animatu eta etorri!



Parte hartzaileak Eskoriatzako aurkezpen egunean. //XDZ



AITOR TATIEGI LOIDI

ZARAUTZ 2024-09-06

LIZARDI SARIKO 48. EDIZIOKO TXAPELDUNA

*Doinua: Baneza eta banitu*

Ez da izan lan bikaina zuen baimenaz, apaina gaur pozak hartu dit gaina bigarren denendain. Urtarrilean hasi genuen bertso-eskolen azaña nahiz lehiaketan bertsozale den oso zaila ta labaina udazkenean hostoak gisan erori gintezke baina behin honezkero ikasi dugu berriz zutitzeko aina.

# 100 lagunek parte hartuko dute Nafarroako Bardoetan

**Irailaren 13an hasiko da aurtengo Nafarroako Bardoetan txapelketa eta urriaren 26an jokatuko da finala, Garesen; Nafarroako bertso mugimendua osasuntsu dagoela adierazi dute antolatzaileek.**

Auzolana eta talde lana oinarrian. Horixe da Bardoetan filosofia: bertsoa taldean bizi izatea. Irailaren 13an hasiko da 2024ko Nafarroako taldekako bertso txapelketa, Bardoetan txapelketa, eta finalera arte, 20 saio jokatuko dira herriz herri. Parte hartuko duten taldeen herriez gain, beste sei herritan ere jokatuko dira sei finalurrekoak, helburua Nafarroako ahalik eta bazter gehienetara iristea baita: Iruztunen, Tafallan, Etxaurin, Irunberrin, Iruñean eta Tuteran. Garesen hartuko du finala eta, lehiatzen harago, "Nafarroako bertsoaren eta euskal kulturaren festa handia" izango dela adierazi dute antolatzaileek.

Parte-hartze handia izango du oraingoan ere ekimenak, guztira, 91 kidek hartuko dute parte: bertsolariak, gai-jartzaileak, antolatzaileak,

sukaldariak... bakoitzak bere roletik emango dio txapelketari forma. Gainera, gazteak, helduak, beteranoak, hasiberriak eta lurralde osoko kideak izango dira. Antolatzaileek esan duten moduan, kopuruek ongi erakusten dute Nafarroako bertso mugimendua osasuntsu dagoela eta transmisioan jarritako arreta eta indarraren fruitu direla: "Bestelako gailurren oinarri dira bertso-eskolak eta tokian tokiko plazak, eta oinarri hori sendoa dela erakusten du egitasmo honek".

2012an sortu zen Bardoak, herrialdeko bertso-eskolen sarea indartzeko helburuarekin. Orduetik, bi urtean behin antolatzen da txapelketa.



20 saio jokatuko dira Nafarroan zehar. //XDZ

## Errexil sariketa berreskuratuko dute Urruñan

**Sailkapen saio bi eta finala izango ditu sariketarak; Urruñako posta gelan jokatuko dira hiru saioak, 19:00etatik aurrera.**

1984. urtean antolatu zuen Bertsularien Lagunak elkarteak lehen Errexil sariketa eta 40. urteurrena probestuko dute berriro egiteko. Juan Jose Eizmendi Goenaga bertsolariaren omenez antolatu zen duela 40 urte lehenengoa, Errezilgoa zen arren Urruñan bizi eta zendu baitzen Eizmendi.

Aurtengoa herriko etxearekin elkarlanean antolatu du elkarteak eta, adierazi dutenez, "bertsoa hauspotu eta Ipar zein Hego euskal Herriko bertsolarietara kantarako lekua ematea" da xedea.

Irailaren 20an eta 27an jokatuko dira sailkapen saioak eta urriaren 4an jokatuko da finala. Hiru saioak izango dira Urruñako posta gelan, 19:00etatik aurrera.

# “Bertsozaleei esker sei programa gehiago izango ditu aurtengo denboraldiak”

Larunbatean ikusi ahal izango dugu ikasturteko lehenengo Hitzetik Hortzera programa ETB1en, 21:00etatik aurrera. Gaizka Azkarate Uzin izango da aurtengoan ere programaren zuzendaria eta xehetasunei buruz hitz egin dugu berarekin.

Programa gehiagorekin dator aurtengo Hitzetik Hortzera.

Bai, 32 programa edukiko ditu aurtengo denboraldiak, apirileko azken larunbatera arte luzatuko da. Sei atal gehiago egitearen arrazoietakoa bat azkenengo urteetan bertsozaleek eman duten feedback ona izan da; hau da, datuek diote bertsozaleek nolabait eskatu egin dituztela programak. Emaiza on horien ondorioa da luzatze hau eta, jakina, oso pozik gaude.

**Bertsoaldiak izango dira programaren muina, ezta?**

Bai, beti bezala bertsoa izango da programaren ehuneko altuena, baina elkarrizketatuek ere tarte ederra izango dute. Programaro egongo da protagonista bat orain arte bezala; batzuetan, bertso mugimendurekin zerikusi zuzena daukana; beste batzuetan, zeharkakoa daukana. Eta, iazko moduan, sorta musikatuak eta Txikitik handira atalak ere egongo dira.

**Zer da ezinbestekoa programa egiterako orduan?**

Aipagarria da beste behin ere saiatuko garela zazpi lurraldeetan ibiltzen. Azken finean, horretan plazak baldintzatzen gaitu; lurralde bakoitzean antolatzen diren plaza kopuruak eta nolakotasunak; baina, denetara joateko konpromisoa dugu hartuta.

Horretaz gain, lurraldetasuna bakarrik ez, bertsolarien aniztasuna islatzen ere saiatzen gara, ahalik eta protagonista ezberdin gehien bilatzen.

**Berrikuntzaren bat egongo da?**

Aipatutako sorta musikatuentzako musikaren sortzailea Manex Pagola izango da. Ohiko sorta edo ohiko musikatuetatik alde egin nahi izan dugu eta produktu berezi bat sortu telebistarako, erritmo modernoagoekin.

**Jantziteriaz arduratuko direnak ere aldatuko dira.**

Bai, hori da, Mirari Martiarena HIKA Basque Brand etxeko jantziekin aterako da pantailara. Erreferenteak dira euskal modan eta euren baloreek bat egiten dute gureekin. Hori izan da harreman honetarako arrazoietakoa bat.

**Iazko lantalde bera ariko zarete. Martxan zaudete dagoeneko?**

Lantaldean iazkook egongo gara, Bertsozale Elkarteko hedapen sailekook.

**Laster ikusiko zaituztegu gure etxeetan, beraz.**

Bai, udan prestaketetan ibili ostean, larunbat honetan izango da lehenengo programa. Eta ordutik aurrera, larunbatero izango duzue ikusteko aukera ETB1en, 21:00etatik aurrera.

## Urriaren 6an egingo dira Bilbon Bizkaiko Bertso Munduko Emakumeen\* topaketak

**Bertso poteoa eta bertso bazkaria antolatu dituzte egun horretarako; helburu nagusia bertsoaren inguruan dabilzan emakumeen saretzea da.**

2022an Markina-Xemeinen egin ziren Bizkaiko Bertso Munduko Emakumeen\* lehenengo topaketak eta urte bira dator bigarren edizioa. Urriaren 6an egingo dira topaketak Bilbon eta egun osoko egitaraua antolatu dute antolakuntzan bildu diren taldekideek.

12:00etan hasiko da poteoa Errondabiden, eta, Garazi Navarro, Irune Basagoiti, Ixone Asategi eta Maite Sarasola ariko dira kantuan. Bertsoekin hasi eta bertsoekin jarraitu, eguerdian bertso bazkaria egingo baitute Kalderapekon, Jone Uria eta Nerea Ibarzabalekin. Bazkarirako txartelak salgai daude [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian, 28 eurotan eta eskuratzeko azken eguna irailaren 30a izango da.

**Sarea osatzea helburu**

Antolatzaileek adierazi dutenez, helburu nagusia Bizkaian bertsoaren inguruan dabilzan emakumeen bildu, elkar ezagutu eta saretzea izango da. Topaketara bertsolariak, bertsozaleak, gai-jartzaileak, epaileak edota antolatzaileak daude deituta: guztientzako lekua izango da.



Markina-Xemeinen izan zen lehen topaketa 2022an. //XDZ



## Puntua jarrita

JOANES IGEREGI SANTA MARIA

Zu ez bezala, Txontxe, ni ume-umetan hasi nintzen bertso- eskolan, artean bertsolaritza zer zen ere ez nekienean. Jakin-min hutsez hasi nintzen, beraz. Horixe dauka saltsa guztietako perrexila izateko bokazioz jaiotzeak. Hasitakoan, baina, hainbat arrazoik mantendu ninduten bertsoari itsatsita. Lehenengo urte haietan, bertso-topaketak eta eskolarteko txapelketak nabarmenduko nituzke. Bertsoen bueltan aurkitutako giroa eta lehia, alegia. Bertsoan egitea jolasa eta jokoa zen niretzat, bata bestea bezainbat. Ostera, bizitzako beste alderdi batzuetan gertatzen zaigun kontrara, helduaroan jolas huts bihurtu zait bertso gintza. Ez daukat argi jokatzeari utzi diodan ala jokoz kanpo geratu naizen, eta ez dio ardura. Edozelan ere, lagun artean elkartu eta hitzekin jolasteko aukera ematen dit bertsoak, ariketa xume bezain konplexuan. Eta ez da gutxi. Bizi ditugun garaiotan, erlojuak eta kontsumoak gure bizitzetako une gehienak kolonizatu dituzten honetan, ederra da lantzean behin mahai bueltan elkartzea eta ideien hartu-eman betean murgiltzea, elkarrizketak nondik nora eramango zaituen igarri ezinda. Edozein burutzio adierazteko aske sentitzea, errima eta neurriaren preso baino ez gaudelarik. Gorputza eta gogoia leku eta momentu jakin horretan bakarrik izatea, kanpoko mundutik erabat deskonektatu bagina bezala. Ekintza gutxi sortzen didate horrenbesteko gozamina, hain gutxiren truke eta modu erabat autoantolatuan. Kartoizko kutxa hutsarekin jolasten den umearen antzera, nahikoa ditugu hiruzpalau lagun, supazter gozo bat eta bakoitzaren hitz biluziak. Hik, Joseba, urte asko daroazak bertso- eskolen sustapen beharrean. Hire ustez, zer erronka deukez bertso- eskolek, gerora ere gazte zein helduei bertsoen gozamina transmititzen segitzeko?

# Koplak

## Ireki dute Nafarroako bertso- eskoletako izen-ematea

2024-2025 ikasturteko bertso- eskolen izen-ematea martxan jarri du Nafarroako Bertsozale Elkarteak: irailaren 20a bitarte egongo da zabalik. Horretarako, [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webguneko izen-emate formularioa bete beharko da. Elkarteak 32 talde eskainiko ditu Nafarroa luze zabalean. Eskolak urriaren lehen astean hasiko dira.

# Poto-Finixa



## Bertso irakasleak behar ditugu

Bertsozale Elkarteak hezkuntza arloan martxan duen proiektuaren baitan, bertsolaritza saioak eskaintzen ditu. Zure garapen profesionala hezkuntzarekin eta bertsolaritzarekin lotuta ikusten baduzu gurekin lan egiteko aukera daukazu. Bi lan- eskaintza desberdin daude, jardun iraunkorra dutenak eta ordukako irakasleak. Informazio guztia [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian duzue.



PUBLIZITATEA